



## UR GEZETAKO ORNOGABEAK: EGOERA EKOLOGIKOA GAINBEGIRATZEA ETA BALIOESTEA.

*Antonio Torralba-Burrial*

*Energiaren, Ingurumenaren eta Klima Aldaketaren Klusterra; Nazioarteko Bikaintasun Campusa –  
Oviedoko Unibertsitatea ES-33003 Oviedo (Espainia) – [torralbaantonio@uniovi.es](mailto:torralbaantonio@uniovi.es)*

Eremu zehatz baten zaintze-egoera ebaluatuko bada, eremu horretako ur kontinentalen egoera (lakuena eta ibaiena) aztertu behar da. Horretarako, Europar Batasuneko Uraren Esparru Zuzentaraua (2000/60/EE Zuzentaraua) kontuan hartu behar dugu. Izan ere, zuzentarau horrek kontzeptuen aldaketa esanguratsua eragin du, ur-kalitatearen kontzeptuari ur-ekosistemaren egoera lotu baitio. Zuzentarau horren bitartez, ur kontinentalezko masetan bizi diren organismoak egoera ekologikoaren bioadierazletzat hartu dira legez. Besteak beste, honako adierazle biologiko hauek (edo bioadierazleak) bildu dira Uraren Esparru Zuzentaraan: fitobentosa, makrofitoak, arrainak eta uretako makro-ornogabeak. Makro-ornogabeak bioadierazle gisa erabiltzeak hainbat abantaila du, arrazoi askorengatik: sare trofikoan ale nagusiak dira, asaldura antropikoek eragindako ingurumen-estresarekin sentikorrek, eta ur kontinentalezko masa gehienetan daude, bai eta modu naturalean arrainak oso gutxitan edo inoiz ez dituzten ur kontinentaletan ere. Horregatik, lehen ere Europan eta Iberiar Penintsulan ur-ornogabeak askotan erabili zituzten ur-kalitatea balioesteko; eta gaur egun, ur-ekosistemen egoera ekologikoa zehazteko erabiliak dira. Asaldura antropikoekin sentikortasuna aztertzeke erabili diren makro-ornogabeen multzo garrantzitsuenak aipatuko ditugu, eta Iberiar Penintsulan ur kontinentalen egoera ekologikoa gainbegiratzeko eta balioesteko erabili diren adierazleak eta laginak hartzeko metodoak azalduko: esate baterako, Iberiar Penintsulako leku askotan IBMWP eta neurketa-sistema anitzeko metodoak erabili dituzte, azken horiek gaur egun garapen- eta aplikazio-fasean dauden arren.

BATZARRA

# UR GEZEN EKOLOGIA NATURA-GUNE BABESTUETAN

2012ko otsailak 8, 9 eta 10

Txingudiko Padurak – Plaiiaundi Ekologia Parkea  
Irun · Gipuzkoa · Espainia

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEAK

## Txingudi Ekoetxea

T. +34 943 61 93 89

[txingudikopadurak@gmail.com](mailto:txingudikopadurak@gmail.com)



# PROGRAMA

Asteazkena, otsailak 8	
Goizez 9:30 – 13:00	Beratarutakoen harrera eta dokumentazioaren entrega (9:00etatik 9:30etara). Ongietorria, aurkezpena eta inaugurazio hitzaldia. “ <i>Odonatos. Las alas del agua</i> ” Erakusketaren inaugurazioa, Iñaki Mezquitarena Bisita gidatua Txingudiko Paduretatik zehar.
Arratsaldez 15:30-19:00	<b>1. GAIA: Aldaketa globala eta ur espezien zikloaren aldaketa</b> Beroketa orokorrak ur ekosistema kontinentaletan eragindako ondorioak. <i>Brian Moss. Liverpooleko Biologia Zientzietako Fakultatearen Zuzendaria.</i> <b>Ur ekosistemen ahultasuna aldaketa orokorraren faktoreen aurrean.</b> <i>Presentación Carrillo Lechuga. Ekologia Saila. Granadako Unibertsitatea.</i>  <b>2. GAIA: Ur gozoen sistemen kudeaketara eta erabilerara aplikatutako ekologia</b> Mikroalga toxikoen zeregina Doñana Parke Nazionalan eta hildako ur hegazti ugarietan eragindako inpaktua: alerta goiztiarraren sarea eta kudeaketa estrategiak. <i>Eduardo Costas. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.</i> <b>Hezeguneen kudeaketa Peñalara Parke Naturalean.</b> <i>Ignacio Granados. Peñalara Parke Naturalaren Ikerketa eta Kudeaketa Zentroa. Madrilgo Erkidegoa.</i>
Osteguna, otsailak 9	
Goizez 9:30 – 13:00	<b>3. GAIA: Ingurumen adierazleak</b> Ur gozoko ornogabeak: egoera ekologikoaren monitorizazioa eta balorazioa. <i>Antonio Torralba. Oviedoko Unibertsitateko energia, ingurumen eta klima aldaketaren klusterra.</i> <b>Ur hegaztiak hezeguneetako bioadierazle gisa.</b> <i>Andy J. Green. Biologia Aplikatuaren Saila, Doñanako Estazio Biologikoa, Zientzia Ikerketek Goi Kontseilua.</i>  <b>4. GAIA: Erronka berriak uretako ekologiararen ikerketan</b> Berpizkundearen ekologia: Aintzira sedimentuen erresistentziako arrautzen sarda eta aleen birsortzea. <i>José M<sup>a</sup> Conde Porcuna. Granadako Unibertsitateko Ekologia Saila.</i> <b>Kostaldeko hezeguneen zeregina CO2 eta atmosferaren arteko elkar trukean: Doñana Parke Nazionalaren ur konpartimentuaren ekarrera.</b> <i>Gabriel Navarro. Andaluziako Itsas Zientzietako Institutua. CSIC.</i>
Arratsaldez 15:30-19:00	<b>5. GAIA: Espezie exotiko inbaditzaileak</b> Doñana, mundura zabalik dagoen hezeguneen laborategia. <i>Fernando Hiraldo Cano. Doñanako Estazio Biologikoa, Zientzia Ikerketen Goi Kontseilua.</i>  <b>AMAIAERA JARDUERA</b> Hitzaldia eta “Invasores” dokumentala. <i>Luis Miguel Domínguez.</i>
Ostirala, otsailak 10	
Goizez	Bisita teknikoa – zehazteko.

## POSTERRETARAKO PROPOSAMENEN AURKEZPENA 2011KO ABENDUAREN 30ERA ARTE